



Euskara Abian

Lehen Hezkuntzarako 5. mailarako Euskara Abian liburua Zubia Editoriala, S. L. ren eta Santillana Educación, S. L. ren Hezkuntza Argitalpenetarako Sailean **Joseba Santxo Uriarteren** eta **Teresa Grence Ruizen** zuzendaritzapean sortu, diseinatu eta gauzaturiko talde-lana da.

Liburu honen prestatze- eta argitaratze-lanean honako talde honek esku hartu du:

TESTUA

Idoia Aranberri

Joseba Santxo

Ainhua Basterretxea

IRUDIAK

Alex Macho

Enrique Morente

EDIZIOA

Ainhua Basterretxea

Joseba Santxo

PROIEKTUAREN ZUZENDARITZA

Joseba Santxo

Maite López-Sáez

Liburu honetako ariketak ezin dira inola ere liburuan bertan egin.
Ariketetan proposatzen ditugun taulak, eskemak eta gainerako
baliabideak ikasleak koadernoan egin beharrekoen ereduak baino ez dira.

Edukien mapa

Eszenatokia			Irakurmena	Harremanetan	Hizkuntzaren erabilera
1	Bizidun artean <i>Txori zauritua</i> 	6	Literatura-testua: <i>Sugea, eltxoa eta enara</i>  6	<i>Hegaztien ospitalea</i>  Informazioa 9	Izena, aditza eta esaldia 10
2	Naturaren lilura <i>Larunbaterako planak</i> 	20	Literatura-testua: <i>Jon eta babatxo miragarria</i>  22	<i>Omako haranean zehar</i>  Orientabideak 25	Izenondoak eta izenlagunak Aditzaren aldia 26
3	Bizi hadi, izadi! <i>Posta elektronikoa</i> 	36	Azalpen-testua: <i>Beltzune galantak!</i>  38	<i>Paisaia harrigarria</i>  Harridura 41	Mugatzailea eta mugagabea 42
4	Paperak galdu gabe! <i>Tetrabrik baten istoria</i> 	52	Literatura-testua: <i>Giacomo kristalezkoa</i>  54	<i>Mikel Martinez</i>  Aurkezpena 57	Zenbatzailea Aditza 58
5	Gazteentzat da plaza <i>Olinpiar Jokoak</i> 	68	Literatura-testua: <i>Argi ibili!</i>  70	<i>Estitxu Vivanco igerilaria</i>  Asmoa 73	Izenordaina Galde-perpauzak 74

1. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA 84-85 Entzungaia: *Gabonetako Haur Parkea*

6	Agur, amandre! <i>Artizarra</i>	86	Literatura-testua: <i>Eguzkia, Ilargia eta Ura</i>	88	<i>Eguzki eta Ilargi amandreak</i> Kontrako ideiak	91	Deklinabidea Aditza	92
7	Lurraren bihotzean <i>Kobako abentura</i>	102	Azalpen-testua: <i>Altzerriko altxorra</i>	104	<i>Txindokiko Mari eta Kattalin.</i> Istoriok	107	Deklinabidea Partitiboa esaldietan	108
8	Aldapan gora <i>Aurrera, mendizaleak!</i>	118	Literatura-testua: <i>Mendizaleak</i>	120	<i>Istripuak ez izateko gomendioak</i> Gomendioak	123	Deklinabidea Erlatibozko perpauzak	124
9	Mariren haserrea <i>Trumoiaren atzetik, euria</i>	134	Literatura-testua: <i>Euria dakar</i>	136	<i>Astebururako planak</i> Proposamenak	139	Deklinabidea Aditza	140
10	Itsasoa laino dago <i>Albiste bitxia Zumaiatik</i>	150	Azalpen-testua: <i>Zer da egia?</i>	152	<i>Surfean Mundakako</i> olatuan. Konparazioak	155	Deklinabidea Aditza: agintera	156

2. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA 166-167 Entzungaia: *Esperimentu bitxia*

11	Behin joan nintzen <i>Oinetakoak merke</i>	170	Literatura-testua: <i>Kontu zehatza</i>	170	<i>Inkesta</i> Iritzia	173	Adizlagunak eta aditzondoak Moduzko perpauzak	174
12	Lehengo eta oraingo <i>Hori duk piura!</i>	186	Azalpen-testua: <i>Modaren joana</i>	186	<i>Jantzi artean</i> Mintzatzea	189	Aditz trinkoak. Denborazko perpauzak	190
13	Atzo goizekoak! <i>Makaleko aurkikuntza</i>	202	Literatura-testua: <i>Aintzirako abentura</i>	202	<i>Duela milioika urte</i> Azalpenak	205	Aditza: NOR-NORI Kausazko perpauzak	206
14	Antzina gazte <i>Oporrak prestatzen</i>	218	Azalpen-testua: <i>Piramideen misterioak</i>	218	<i>Tutankamonen madarikazioa.</i> Konbentzitzea	221	Aditza: NOR-NORK Konparazio-perpauzak	222
15	Bakoitzari berea <i>Asper-asper eginda</i>	234	Kondaira: <i>Mairuaren kobazuloa</i>	234	<i>Romeo eta Julieta</i> Sentipenak	237	Aditza: NOR-NORI-NORK Perpau osagarriak	238

3. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA 248-249 Entzungaia: *Sokamuturra*

Ortografia	Testu-tipologia	Lexikoa	Literaturaz gozaten	Amaierako jarduerak
Letra larria 13	Liburu baten fitxa 14	Sinonimoak 16	Zer da literatura? 17	Liburu baten aurkezpena 18
S, x, z 29	Azalpen-testua I 30	Antonimoak 32	Literatura- generoak 33	Uste okerren arriskua 34
A itsatsia 45	Azalpen-testua II 46	Polisemia 48	Kontakizuna 49	Bardeak 50
Zenbakien idazkera 61	Iritzi-artikulua 62	Hitz elkartuak I 64	Olerkia 65	Birziklatzea, abantailak denontzat 66
Ts, tx, tz 77	Araudia 78	Hitz elkartuak II 80	Antzerkia 81	Arrautzak jaurtitzeko lehiaketa 82

ERANSKINA: aditz-taulak, deklinabidea, ortografia...

Komaren erabilera 95	Biografia 96	Hitz elkartuak III 98	Prosa eta olerkia 99	Hego Poloaren konkista 100
H letra 111	Iragarkia 112	Egile-atzizkiak: -ari, -gile, -gin, -tzaille... 114	lpuina 115	Gatzari buruzko bitxikeriak 116
Jatorri-atzizkia 127	Entziklopediako definizioa 128	Atzizkiak: -gai, -gailu, -ki 130	Kontalaria 131	Udako kronikak 132
S, x, z 143	Galdetegia 144	Atzizkiak: -ki eta -kin 146	Pertsonaiak 147	Berotegi-efektua 148
Puntuak: bi puntuak eta eten-puntuak 159	Prozedura 160	Atzizkiak: -tsu eta -ti 162	Alegia 163	Itsasontzia botila barruan 164

ERANSKINA: aditz-taulak, deklinabidea, ortografia...

Ts, tx, tz 177	Kazetaritza-elkarriketa 178	Atzizkiak: -ero eta -ka 180	Bertsoa eta olerkia 181	Osvaldo Sandovalekin solasean 182
Orduak 193	Albistea I 194	Onomatopeiak 196	Olerki askea 197	Arrantzaleen mahoizko jantziak 198
Bait- partikula 209	Albistea II 210	Hitz-familiak 212	Bertsolaritza 213	Trikuharriak 214
-in-, -il- / ñ, ll 225	Egunerokoa 226	Alor lexikoa 228	Bat-bateko bertsoak 229	Ulises eta Polifemo ziklopea 230
Marra elkarriketan 241	Informazio-orria 242	Zehaztasuna 244	Bertso jarriak 245	Konpontze-lanetan eta irekita 246

ERANSKINA: aditz-taulak, deklinabidea, ortografia...

1

Bizidun artean



Lagun zintzoa,
bat izanda ere nahikoa!



Mintzamena

- 1 Azaldu irudia. Zer gertatu ote da?
- 2 Ba al dakizu ezer argazkian ageri diren animaliei buruz?
- 3 Deskribatu animaliak.
- 4 Zure ustez, egokiak al dira maskota gisa edukitzeko?





Entzumena

- 5 Entzun *Txori zauritua* testua eta aipatu elkarrizketan parte hartzen duten neska-mutil batzuen izenak.
- 6 Zer txoriren izena aipatu dute?
- 7 Kontatu zure hitzez entzungaia azaltzen den egoera.
- 8 Zer egingo zenuke zuk neska-mutilen lekuan bazeunde?



Irakurmena

XOLA ETA KAZETARIAK

Xola zoriontsu bizi zen, oso zoriontsu. Gogoak ematen zionean ateratzen etxetik, eta gogoak ematen zionean, etxerako bidea hartzen zuen; batzuetan poliki eta beste batzuetan azkar, zer eskatzen zion gogoak. Egun batean, bazihoan parkean oinez eta bi gazte hurbildu zitzaizkion. Kazetariak zirela jakinarazi zioten Xolari eta *Parketik zuzenean* izeneko programa bat egiten ari zirela. Ea hitz batzuk esango zizkien.

BERNARDO ATXAGA

Xola eta Ameriketako izeba. (moldatua)



- 9 Nori buruz hitz egiten zaigu pasartean? Zer kontatzen digu?
- 10 Nondik aterata ote dago pasartea, egunkari batetik ala literatura-lan batetik?
- 11 Zure ustez, zer-nolako berezitasunak dituzte literatura-testuek?



Idazmena

- 12 Asmatu kazetarien eta Xolaren arteko elkarrizketa.

- Hasteko, asmatu Xola bezalako txakur bati egingo zenizkioken lauzpabost galdera.
- Ondoren, saiatu galderei erantzuten, Xolaren ikuspuntua eta nortasuna kontuan hartuta.




EGITEN JAKIN



Liburu baten fitxa

- Zer nolako datuak ageri dira liburuaren azalean?
- Non azaltzen ote da liburua zeri buruzkoa den?
- Baliagarria iruditzen zaizu datu horiek bilduta izatea? Zertarako?

Unitate honetan, liburu baten fitxa egiten ikasiko duzu. Fitxan nolako datuak bildu behar dituzun eta datu horiek zertarako diren baliagarriak ikusiko duzu. Adi, beraz!





★ Sugea, eltxoa eta enara

Orain dela urte asko eta asko, bazen Txinako herri batean gizon zahar eta jakintsu bat. Behin, **meskitan Korana** errezatzen ari zela, suge handi bat agertu zitzaion. Sugeak, ahotzarra zabal-zabal eginda, zera esan zion:

–Goseak amorratzen nago, eta munduko haragirik gozoena jan nahi nuke. Arren, esadazu zein den.

–Egon apur batean –esan zion jakintsuak–. Lehenik, eltxoa bidaliko dut haragi mota guztiak dastatzera, eta ondoren emango dizut erantzuna.

Orduan, jakintsuak herriko errementariari eskatu zion eltxoari burdinazko aho zorrotz bat jartzeko. Gero, eltxoari erregutu zion haragi mota guztiak dastatzera joateko.

Iluntzean, eta eltxoa artean itzuli ez zela ikusita, jakintsuak enara bidali zuen eltxoaren bila.

Abiatu zen, bada, enara, eta azkenean, aurkitu ere aurkitu zuen eltxoa, haragia jan eta jan zebilela. Orduan, haren ondoan pausatuta, zera esan zion enarak:

–Horrenbeste haragi janda, honezkero jakingo duzu zein den haragirik gozoena.

–Egia esan, haragi mota guztiak dastatu ditut –esan zuen eltxoak harro-harro–, eta dagoeneko, argi daukat zein den haragirik gozoe-na: gizakiarena!

Enara ikaratu egin zen hori entzunda, eta berehala pentsatu zuen: «Eltxo maltzur honek nire lagun jakintsuari hori esaten badio, akabo gizakiak eta haien jakinduria!». **Halandaze**, enara, birritan pentsatu gabe, eltxoari **oldartu** zitzaion eta mokokada garbi batez mihia **erauzi** zion.

Jakintsuarengana itzuli zirenean, sugea urduritzen hasita zegoen:

–Bizkor, esadazue zein den haragirik gozoena.

Eltxoak, mihiarik ez zuenez, **durundi-hotsak** baino ezin izan zituen egin:

–Zzzzzz, zzzzz, zzzzz...

Orduan, enarak beste azalpen bat eman zuen:

–Eltxoak «zzzzzuloan» esan nahi du, hau da, sabela bete nahi bazu, zulo batera joan behar duzula, saguak bizi diren zulo batera, alegia. Beraz, haragi guztietan gozoena saguaren haragia da!

–Ondo da –esan zion jakintsuak sugeari–. Aurrerantzean, ondo biziko zara saguak janez.

Sugea aldendu zenean, enarak egia osoa esan zion jakintsuari. Orduan, jakintsuak, esker onez, hauxe esan zion enarari:

–Argi eta garbi erakutsi duzu, enara laguna, zeu zarela gizakiaren adiskiderik leialena; izan ere, kalte ikaragarri batetik babestu gaituzu. Hemendik aurrera, gizakion inguruan bizitzeko aukera izango duzu.

Eta halaxe, bada, ordutik hona, enara jatorrak gizakiaren laguntasunean bizi dira.

meskita: musulmanen bilgunea eta otoitz-etxea.

Koran: musulmanen liburu sakratua.

halandaze: beraz, orduan.

oldartu: eraso egin.

erauzi: errotik atera.

durundi-hots: hots ozen eta errepikakorra.

TXINAKO HERRI-IPUINA



Irakurgaia lantzen

Ulermena

1 Erantzun galderei.

- Non eta noiz gertatu zen ipuina?
- Zein pertsonaia ageri dira ipuinean?

2 Azaldu zein den animalien zeregina.

- Zer jakin nahi zuen sugeak?
- Zein zen eltxoaren egitekoa?
- Zertara bidali zuen gizon jakintsuak enara?
- Zer egin zuen enarak eltxoa aurkitzean?
- Zer esan zion gizon jakintsuari? Zergatik?



Egitura

3 Kopiatu gertakariak ordenan koadernoan.

- Gizonak enara bidali zuen eltxoaren bila.
- Haragirik gozoena saguena zela esan zioten sugeari.
- Gizonak eltxoa bidali zuen haragi mota guztiak dasta zitzan.
- Antzina, Txinan gizon jakintsu bat bizi zen.
- Enarak mihia kendu zion eltxoari.
- Behin, sugeak munduko haragirik gozoena zein zen galdetu zion.

4 Aukeratu ipuinerako amaiera zuzena.

- Ordutik, eltxoek ez dute hitz egiten.
- Sugeak saguak jaten ditu, bai pozik jan ere.
- Mesedearen truke, enarak gizakien laguntasunean bizi dira.
- Geroztik, sugeak eta enarak elkarrekin bizi dira.



Laburpena

5 Idatzi ipuinaren laburpena.



- Hasteko, esan hasierako egoera zein den.
► Adibidez: *Txinako gizon jakintsu bati sugeak galdetu zion...*
- Ondoren, bildu gertakari garrantzitsuenak:
 - Nor bidali zuen gizonak erantzunaren bila?
 - Nor bidali zuen gero? Zer egin zuen hark?
 - Zer esan zion sugeari?
 - Zer gertatu zen azkenean?

Lexikoa

6 Berridatzi esaldiak. Jarri hitz hauek nabarmendutakoen ordean.

kokatu

eseri

pausatu

- Enara eltxoaren ondoan **jarri** zen.
- Gizona lurrean **jarri** zen, itxaroteko.
- Eltxoari burdinazko aho zorrotz bat **jarri** zioten aurpegian.



7 Adierazi. Nolakoa da ahotzarra?

zaharra

handia

gaiztoa

- Aipatu -tzar atzizkia duten beste hitz batzuk eta idatzi esaldiak.

Ikerketa

8 IKT. Bilatu Interneten. Nola esaten zaio animaliak protagonista dituen ipuin motari? Bilatu beste adibideren bat.



Zure ekarpena

9 Asmatu eta kontatu. Zer gertatuko zen ipuineko enarak eltxoari egia esaten utzi izan balio?





★ 1 Entzun *Hegaztien ospitalea* elkarrizketa eta aukeratu erantzun zuzenak. 🔊

- Nola du izena hegaztien ospitaleak?
 - a) Txori Etxea. b) Arranopola. c) Arrano Etxea.
- Non dago?
 - a) Donostian. b) Ibarran. c) Astigarragan.
- Zein hegazti mota daude han batik bat?
 - a) Hegazti exotikoak. b) Oiloak. c) Hegazti harrapariak.
- Nolako zauriak izaten dituzte hegazti gehienek?
 - a) Tiroak. b) Traumatismoak. c) Iltzeak hegoetan.
- Erraza al da hegaztien hegoak sendatzea?
 - a) Oso erraza da. b) Erraz samarra da. c) Ez da batere erraza.

2 Azaldu zure hitzez.

- Zer gertatzen zitzaien elkarrizketan aipatzen den aztoreari?
- Nola zauritu zuten?
- Nork eraman zuen hegaztiak sendatzeko zentrorra?
- Azkenean, sendatu egin al zuten?

3 Irakurri elkarrizketatuaren erantzunak eta adierazi zer galdetu dion elkarrizketatzaileak.

Zaletasunez hasi nintzen. Animalien kontuak asko gustatu zaizkit beti eta nire etxea zoologiko txiki baten modukoa izan da.

Egia esan, ez ditut zenbatu, baina berrogeita hamar bat daude etxean orain.

Hasiera batean, ez nuen laguntzarik, baina orain Foru Aldunditik dirua jasotzen dut.

★ 4 Prestatu hegaztiak sendatzeko zentroko zuzendariari egingo zenizkikeen bizpahiru galdera.

- Zer gehiago jakin nahi duzu Arrano Etxeari buruz?

★ 5 IKT. Saiatu galdera horien erantzuna bilatzen, Arrano Etxearen webgunea aztertuta.

6 LAN KOOPERATIBOA. Binaka jarrita, mintzatu gogokoen dituzuen maskotei eta haien beharrezaneiei buruz.

- Prestatu elkarri egingo dizkiozuen galderak, maskotak direla-eta.
- Erantzun galderei eta eztabaidatu bakoitzaren gustuei buruz.

Oiloa, jakina!



Oiloa ala arrautza?

Lagun batek zera esan zion beste bati, adarra jo nahian:

–Zer izan zen lehenago, oiloa ala arrautza?

–Oiloa, jakina! –erantzun zuen besteak.

–Ba, oker zaude. Oiloak existitu baino askoz ere lehenago baziren arrautzak... dinosauroenak baina! Kar, kar, kar...

Arrazoi zuen. Aurrerantzean badakizue zer erantzun galdera hori egiten dizuenari!

1 IZENAK ETA ADITZAK. Ba al dakizu hauetatik zein hitz diren izenak, eta zein, aditzak?

lagun esan adarra oiloa
arrautza erantzun zaude dinosauroa
galdera egiten existitu arrazoia

2 IZEN MOTAK. Jakingo al zenuke izen hauek honelako taula batean sailkatzen?

Pluton itsasoa
Joxepa Rihanna
taldea hiria
Mediterraneo behia
abeslaria planeta
Paris Osasuna

IZEN BEREZIAK	IZEN ARRUNTAK
Joxepa	behia

JAKIZU

■ **Hiztegietan**, normalean, izen arruntak baino ez dira agertzen:

➤ ibai, dotore...

■ **Entziklopedietan**, berriz, izen arruntak zein bereziak ager daitezke:

➤ Irati, ibai...

3 IZEN ARRUNTAK ETA BEREZIAK. Lotu izen arruntak eta bereziak koadernoan.

- | | |
|-----------------|-------------|
| uhartea ■ | ■ Carmen |
| aldizkaria ■ | ■ Gaztezulo |
| musika-taldea ■ | ■ Izaro |
| opera ■ | ■ San Telmo |
| museoa ■ | ■ Zea Mays |
| artista ■ | ■ Gabon |
| gaua ■ | ■ Oteitza |

4 ADITZAK. Osatu esaldiak, aditz hauetatik egokiena jarritz.

zara zuen da
dute daude zen

- Hegazti mota asko .
- Pinguinoek ezin hegan egin.
- *Pterodaktiloa* antzinako hegaztia .
- Delta-hegalean ibili al inoiz?
- «Hegoak ebaki banizkio, nerea izango zen, ez alde egingo...».

5 ADITZ TRINKOAK. Bete hutsuneak, hitz bakarreko aditzak erabiliz.

- Ba al panderoa jotzen? Eta adarra?
- Orain, ni ez parkera, etxerako lan asko ditut-eta.
- Hor txolarre gogaikarriok! Ereindako ale guztiak jango dizkidate!
- Ni orain bizikletan ; gero, motorrean ibiliko naiz.
- Gu erabat ados irakaslearekin, ezta?



6 ADITZ LAGUNTZAILEAK. Aukeratu aditz zuzena kasu bakoitzean.

- *Tiranosaurus Rex* izeneko dinosaueroak hortz ikaragarriak...
☐ zizkion. ☐ du. ☐ zituen.
- Ikusi al ... inoiz ostruka-arrautzarik?
☐ dituzu ☐ duzu ☐ zenuen
- Ba al ... galeper-arrautzatxoak pintxoetan erabiltzen direla?
☐ dakizkizu
☐ zenekizkien
☐ zenekien
- Ikusi al ... mokoia tukan horri? Hori da hori mokotzarra!
☐ diozu
☐ diezue
☐ duzue

7 ADITZ BEREZIAK. Berridatzi esaldiok, hitzak ordenatuz.


- duzu? / esan / nahi / Zer / izan
- gehiago / ote / eskatzerik? / dago / Ez
- digute / janarazi. / osoa / platerkada / Ezin
- inori / eragiten. / horiek / diote / Pailazo / ez / barre
- jantzita. / duzu / Detektibea / hori / gabardina / ematen

Izena eta aditza

- **Izena.** Bi izen mota daude: **arruntak** (letra xehez idazten dira) eta **berezia** (letra larriz idazten dira).
 ➤ *Joxepa (izen berezia)* ➤ *behia (izen arrunta)*
- **Aditza** ekintza adierazten duen hitza edo hitz multzoa da.
 ➤ *Oiloak arrautza **errun du** (aditza).*
- Aditzak hitz bakarrekoak izan daitezke (**aditz trinkoak**), edo hitz bat baino gehiagokoak (**aditz perifrastikoak**).
 ➤ *Oiloak bi hanka **ditu** (aditz trinkoa).* ➤ *Oilarrak harra **jan du** (aditz perifrastikoa).*

8 GALDERAK. Egin galderak, adibidean bezala.

- **Maitek** esan du hori. ➤ **Nork** esan du hori?
- **Bihar** ikusiko dugu filma.
- **Trenez** etorriko omen dira.
- **Hitz luze bat** idatzi dut.
- **Mendira** joango gara.



9 BAIEZKO ESALDIAK. Eman baiezko erantzunak, adibidean bezala.

- Badakizue noiz datorren? ➤ **Bai**, badakigu.
- Ba al dago gatzik?
- Badute astirik?
- Badira ordu biak?
- Bagara gauza egiteko?

10 EZEZKO ESALDIAK. Berridatzi esaldiak ezezko eran.

- Atzo arrautzopila afaldu nuen.
➤ Atzo **ez** nuen arrautzopilik afaldu.
- Zure ordenagailua behar bezala dabil.
- Kutxa horretan zerbait dago.
- Gaur norbait etorriko zaizu bisitan.

11 HITZEN ORDENA. Berridatzi esaldiok koadernoan, hitzak ordenatuta.

- den. / nola / ez / behar / hori / egin / Nik / dakit
- ez / badago / bagoaz / Lekurik / ere, / gu.
- Han / inolako / ziguten / eman. / ez / azalpenik
- jo / duzu / uste / digutela? / adarra / Ez
- jakiterik / diren. / Ez / horiek / nola / gauza / dago / konponduko

12 GALDEGAIA. Erantzun galderei, adibidean bezala.

- Nor etorri zen iluntzean? (Amaia)
➤ Amaia etorri zen iluntzean.
- Nora joango zarete asteburuan? (atzerrira)
- Zer irakurri diozu haurrari? (ipuin berria)
- Nola jantzi du Kepak jertsea? (atzekoz aurrera)
- Zenbat txanpon sartu behar dira makinan? (hiru)



Esaldia edo perpausa

Esaldiak edo perpausak beti izan behar du aditza.

- **Baiezko perpausetan**, aditza amaieran egon ohi da.
➤ *Irakasleak (nork) zerbait (zer) esan du (aditza).*
- **Galderazko perpausetan**, aditza galdetzailearen ondoren jarri ohi da.
➤ *Zer (galdetzailea) esan du (aditza) irakasleak? (nork).*
- **Ezezko perpausetan ere**, aditza EZ partikulararen ondoren ageri ohi da.
➤ *Irakasleak (nork) EZ du (ezezkotasuna) esan (aditza) ezer (zer).*
- **Galdegaia** esaldian garrantzi berezia hartzen duen hitza da. Galderarik badago, galderari erantzuten dion hitza da galdegaia. Beti agertzen da aditzaren ezkerrean.
➤ *Nork erosi du papera? JOSUK (galdegaia) erosi du papera.*

...eta kito!



Letra larria noiz erabili

- Letra larria **idazten dugun edozeren hasieran** erabili behar da, bai eta **puntuazio-marka hauen ondoren** ere: puntu, galde- edo harridura-marka eta eten-puntuak.
- Letra larria **izen bereziekin ere** erabili behar da: pertsona-izenak, animalia-izenak, leku-izenak, erakunde-izenak, jaiegun eta entzute handiko izenak, astronomia-izenak, ikasgaiak, sarien izenak...
 - *Ander, India, Eusko Jaurlaritza, Maiatzaren Bata, Eguberriak, Lur planeta, Euskara eta Literatura, Nobel saria...*

1 LETRA LARRIA. Berridatzi testutxo hau, letra larria egoki erabiliz.

gaua zen eta ez zen ezer ikusten. horregatik pentsatu genuen su txiki bat egitea. handik ordu pare batera, sugar mehe batzuek pixka bat argitzen zuten gure ingurua. orduan bai gustura! baina non zeuden sara eta xabi? iratiko oihanean galdu genituen eta batek jakin non zeuden une hartan... goizean haien bila irten beharko genuen.

2 LETRA LARRIA IZEN BEREZIETAN. Berridatzi hitzak, letra larria kontuan harturik.

- errobi ibaia ► *Errobi ibaia*
- ane olaizola epailea
- pintto txakurra
- biologia eta geologia ikasgaia
- artizarra
- urteberri-eguna
- lizarako udala
- urruzuno saria



3 LETRA LARRIA IZEN BEREZIETAN. Sailkatu aurreko ariketako hitzak eta eman beste adibide bana.



IZEN BEREZIAK

■ Leku-izenak:	<i>Errobi</i>	
■ Pertsona-izenak:		
■ Animalia-izenak:		
■ Erakunde-izenak:		
■ Jaiegun eta entzute handiko izenak:		
■ Astronomiako izenak:		
■ Ikasgaien izenak:		
■ Sarien izenak:		

FITXA



- **IZENBURUA:** Asto-bahitzaileak
- **EGILEA:** Gerald Durrell
- **ARGITALETXEA:** Alfaguara-Zubia
- **ARGITARATZE-URTEA:** 2007
- **LIBURUAREN LABURPENA:** Greziako uharte batean Yani mutiko umezurtzak neke handiz ateratzen du bizi-modua, bere aitak utzitako lurak landuz.
Herriko alkatea Yaniren etxeaz eta lurrez jabetzen saiatuko da, haren aitak dirua zor ziola-eta. Lagunek orduan plan bitxi bat asmatuko dute Yaniri laguntzeko. Zer egingo ote dute?

★ 1 Irakurri *Asto-bahitzaileak* liburuaren fitxa, eta ondoren, liburu bereko pasartea.

/ ... /

–Asto bat besterik ez da –esan zuen Yanik ezer ulertzen ez zuelarik.

–«Asto bat besterik ez da» –errepikatu zuen Amandak–. Asto bat besterik ez dela esan duzu? Bada, hortxe dago zure arazoaren konponbidea.

–Zertaz ari zara? –esan zuen Davidek, ia haserre–. Nola konponduko ditu Yaniren arazoak arrantzaka ari den astoak?

Amanda berengana itzuli zen. Aurpegia pizturik eta begiak ia beltz zituen.

–Baina ez al duzue konprenitzen, tontolapiko horiek? –galdetu zuen–. Herria alkatearen aurka jarriko duen zerbaiten bila ari ginen, ezta? Hortxe dago.

–Baina nola jar dezake asto batek herria alkatearen aurka? –galdetu zuen Yanik, guztiz nahasirik.

Amandak zizpuru egin zuen.

–Entzun adi –esan zien–. Herriko soro guztiak mendiaren barrenean daude, lautadan.



Nola moldatzen da jendea lur horiek landu, uzta bildu eta herrira eramateko?

–Astokein, nola bestela! –esan zuen Yanik oraindik harriturik.

–Horixe da! –esan zuen Amandak garailearen keinuz–. Eraman itzazu astoak eta herri osoa geldiaraziko duzu.

/ ... /

GERARD DURRELL
Asto-bahitzaileak (moldatua)

JAKIZU

FITXA

- Fitxak zerbaiten (liburuak, animaliak, autoak...) inguruko **informazio laburra eta zehatza emateko** erabiltzen dira.
- Fitxetan **ezaugarri garantzitsuenak** baino ez dira azaltzen, eta gainera, oso era laburrean.

2 Zer atal ditu aurreko orrialdeko fitxak? Zerrendatu.

3 Zer-nolako informazioa aurki dezakezu liburuaren fitxan? Aukeratu.

- ☐ Liburua nork idatzi duen.
- ☐ Liburuko istorioa nola bukatzen den.
- ☐ Liburua zein argitaletxek eman duen argitara eta noiz.
- ☐ Egileak non idatzi duen liburua.
- ☐ Liburua nori gustatu zaion eta nori ez.
- ☐ Liburuak zer izenburu duen.
- ☐ Liburuaren laburpentxoa.

4 Erantzun galderei.

- Zer pertsonaiak hartzen dute parte pasarteko elkarriketan?
- Zein da Yaniren arazoa?
- Zer proposatu die Amandak lagunei Yaniri laguntzeko?
- Zergatik dira hain beharrezkoak astoak herrian?

5 Lagundu al dizu liburuaren fitxak liburuko pasartea ulertzen? Zer jakin duzu istorioari buruz fitxari esker?

6 Asmatu izenburu bat irakurri duzun pasarterako.

7 Hauetako zein datu ager daitezke liburu baten fitxan?

100 km/h-ko abiadura har dezake.

Joxean Ormazabal.

Lau haizetara argitaletxea.

150 kanta gorde ditzake.


8 Zertarako erabiltzen ditugu horrelako fitxak? Aukeratu.

- ☐ Zerbaiten ezaugarri nagusiak labur-labur azaltzeko.
- ☐ Zerbait erostera bultzatzeko.
- ☐ Gertatu den zerbaiten berri emateko.

EKIN IDAZTEARI

★ 9 Idatzi asko gustatu zaizun liburu baten fitxa. Egin honela:

- Bilatu liburuaren ezaugarri nagusiak: idazlea, argitaratze-urtea, argitaletxea...
- Idatzi liburuaren laburpentxoa. Baina kontuz, ez eman informazio gehiegi.
- Prestatu liburuaren fitxa bildutako datuekin eta laburpenarekin. Ez ahaztu irudiren batekin apaintzea.





Lurak badu txakur txiki bat

Lurak badu txakur **txiki** bat. Asko maite du Lurak bere txakur **jostalaria**, zoriotsu egiten duelako bere zaunka **biziekin** eta bere milika **maitetsuekin**.

Luraren txakurra Adolfo deitzen da. Luraren ahizpak jarri zion izen **bitxi** hori. Pertsona baten izena da, baina egia esan, primeran datorkio. Izan ere, Adolfo pertsona bat bezain **ernea** da.

1 Bilatu goiko testuan hitz hauen esanahi bera duten hitzak.

- | | |
|------------------------------------|----------------------------------|
| ■ berezia: <input type="text"/> | ■ azkarra: <input type="text"/> |
| ■ ñimiñoa: <input type="text"/> | ■ jolastia: <input type="text"/> |
| ■ maitekorra: <input type="text"/> | ■ alaia: <input type="text"/> |

2 Esan zein den sinonimoa.

- | | |
|----------------------------------|--|
| ■ Behiak ukuiluan daude. | ■ Ardien bee luzea entzun dugu. |
| ☐ kaiolan | ☐ irrintzi |
| ☐ etxolan | ☐ marraka |
| ☐ kortan | ☐ orro |

3 Lotu elkarren sinonimoak diren hitzak.

- | | |
|---------------|--------------|
| natura ■ | ■ aberea |
| gorotza ■ | ■ artatxoria |
| animalia ■ | ■ izadia |
| txerria ■ | ■ karniboroa |
| buztana ■ | ■ isatsa |
| txolarrea ■ | ■ simaurra |
| haragijalea ■ | ■ urdea |

JAKIZU

- Esanahi bera duten hitzak hitz **sinonimoak** dira.
- Sinonimoak erabiliz, ez dugu hitz bera errepikatu behar, eta gure **hizkera** eta **idazkera** aberatsago egiten ditugu.

4 ESAPIDEAK. Noiz esango zenituzke esapide hauek?

Txoriburu hutsa zara!

- ☐ Zure lagunak andre zahar bati bidea igarotzen lagundu dio.
- ☐ Zure lagunak harri bat jaurti du, txantxetan, baina ia-ia jo egin zaitu.

Oilo-ipurdia jarri zait!

- ☐ Atearen bestaldean norbait zelatan zebilela iruditu zait. Zer beldurra...
- ☐ Irristailuekin nenbilela, erori egin naiz eta kolpea hartu dut ipurdian...



Zergatik idazten duzu?

Idazleari galdera zail hau egin zion haur batek. «Zergatik idazten duzu?». Idazleak, ondo pentsatu ondoren, arnasa hartu eta esan zuen:

«Galdera horretarako ez daukat erantzun bakarra, hainbat erantzun ditut.

Idazten dut uste dudalako norberak gustatzen zaion hori egin behar duela, eta niri idaztea gustatzen zait.

Idazten dut maite dudalako orri zuri batean unibertso osoak sortzea.

Idazten dut neure gelatik atera gabe, idazterakoan, Londresko kale ilunetatik ibil naitekeelako, detektibea izan naitekeelako, gaiztoen atzaparretatik ihes egin dezakedalako...

Idazten dut behin irakurle bat nire lehen eleberriarekin hurbildu zitzaidalako esanez: "Bi aldiz irakurri dut zure liburua; bukatutakoan berriz hasi nintzen irakurtzen".

Idazten dut hitz egiten baino hobea naizelako idazten.

Idazten dut agian horixe delako ondoen egiten dakidana.

Idazten dut hitzak haizeak daramatzalako eta ni hitzen ehiztaria naizelako.

Eta hala ere, hitz batzuk, batzuetan, ihesi joaten dira».

Eta azken esaldi misteriotso harekin idazlea isildu egin zen eta oraingoan haurra geratu zen pentsakor.

DANIEL H. CHAMBERSEN testu batean oinarritua

JAKIZU

- Literatura **arte mota bat** da, pintura eta eskultura bezala.
- Literaturaren helburua ideia bat **modu erakargarrian** adieraztea da.

1 Erantzun galdera hauei.

- Zein galdera egin zion haurrak idazleari? Ba al zuen idazleak erantzunik?
- Zer egin dezake idazleak bere gelatik atera gabe idazten ari denean?
- Zer esan zion behin irakurle batek idazleari?

2 Osatu idazlearen esaldi hauek.

- Idazten baino hobea naiz.
- Maite dut orri zuri batean .
- Norberak egin behar du.

LITERATURATIK HARAGO



Eragon idatzi zuen gaztea

Idazleak ez dira beti pertsona nagusiak izaten. Adibidez, 15 urterekin hasi zen Christopher Paolini *Eragon* izeneko liburua idazten koaderno-txo batean. Azkenean, 500 orrialdeko liburua idatzi zuen. Gero, argitaratu egin zuen eta, denborarekin, mundu osoan izan zuen arrakasta. Nork esango zion halakorik idazten hasi zenean!

3 Zertarako idatziko zenuke zuk liburu bat? Asmatu bi arrazoi.





1 Irakurri testu hau eta erantzun galderei.

Itsasoko suge pozoitsua

Sugeak Lurreko kontinente guztietan aurki daitezke, Antartikan izan ezik. Baina suge lehortarrez gain, badaude itsaso tropikaletan bizi direnak ere.

Bizitza osoa itsasoan ematen dute eta ez dira inoiz lehorrera irteten. Arnasa hartzeko birikak dituztenez, noizean behin itsas gainazalera atera behar izaten dute arnasa hartzeko. Hala ere, arnasari eusteko gaitasun handia daukate eta bi ordu arnasarik hartu gabe egoteko gai dira. Are gehiago, ur azpian egiten dute lo!

Itsas sugeak harrapariak dira; arrainak, aingirak eta karramarroak jaten dituzte. Baina beldurgarrien egiten dituen ezaugarria pozoia da. Munduko pozoirik toxikoena dute, kobraren pozoia baino hamar aldiz hilgarriagoa.

Eskerrak oso animalia baketsuak diren! Izan ere, hozka egin baino, nahiago dute ihes egin.

Zernola.net. (Moldatua).

- Zergatik dira beldurgarriak itsas sugeak?
- Zer alde dute itsas sugeek itsasoan bizi diren arrainekin?
- Itsasoan aurkitzeaz gain, non aurki ditzakegu sugeak?
- Gure kostaldean ere ba al dago horrelako sugerik?
- Zu igerian ikusiz gero eraso egingo zizutela uste duzu? Zergatik?

2 Bereizi esaldi hauetako izenak eta aditzak.

- Anek gaur pastela jan du.
- Osaba Mikel Aldapa kalean bizi da.
- Atzo Aitzol ikusi genuen parkean.
- Etxeko teilatuan zazpi katu daude dantzan.

3 Sailkatu aurreko ariketako izenak.

- Zein dira bereziak?
- Zein dira arruntak?

4 Aukeratu hitz zuzena esaldi bakoitzean.

- Gazta guztia *saguak* / *saguek* jan dute.
- Osabak *opari* / *oparia* bana ekarri digu.
- Ezetz jakin zein *marrazki* / *marrazkia* egin dudan nik?
- Gelako *mutilak* / *mutilek* oso jatorrak dira.



5 Berridatzi esaldiok, hitzak ordenatuz.

- du / bazkaltzeko. / nahi / Anek / arraina
- itxi. / dugu / izan / ezin / Guk / atea
- saguak / Katuak / ditu. / harrapatu / behar
- ez / ematen. / horiek / diote / Zapata / min

6 Berridatzi testutxo hau, puntuak eta letra larria egoki erabiliz.

pintto txakurra

hau pintto da pintto oso txakur jatorra da ez du kosk egiten eta begi bat ixten du jolastu nahi badu pinttok hiru urte ditu amak oparitu zidan nire urtebetetze-egunean etxera ekarri zuenean, jaioberria zen pintto.





7 Entzun *Liburu baten aurkezpena* testua arretaz eta erantzun.

- Zer girotakoa da aipatzen den eleberritxoa?
- Nola du izena horko protagonistak?
- Bera al da narratzailea?
- Aurkezten denaz gain, zein beste hiru liburu ezagun aipatzen dira?
- Zer ziren txoak?
- Noren mandatuz idatzi du liburua egileak?



8 Osatu entzungaiko liburuaren fitxa. Bildu datu hauek:

- | | |
|-------------------------|-----------------|
| ■ Izenburua. | ■ Egilea. |
| ■ Irudigilea. | ■ Argitaletxea. |
| ■ Liburuaren laburpena. | |



9 Lotu esanahi bera duten hitzak edo sinonimoak.

- | | |
|----------|------------|
| broma ■ | ■ eskutitz |
| jator ■ | ■ altxatu |
| gutun ■ | ■ bueltatu |
| itzuli ■ | ■ txantxa |
| jaso ■ | ■ atsegin |



10 Aukeratu esapide honen esanahi bera duena.

Auzoko umea txoriburu galanta da.

- ☐ Auzoko umea oso-oso buruarina da.
- ☐ Auzoko umea buruargia eta dotorea da.
- ☐ Auzoko umea txoriak gustatzen zaizkio.



11 Pentsatu eta azaldu.



- Zure ustez, zertarako balio du literaturak?
- Zu literaturazalea al zara?



ASKOTARIKO ADIMENAK



12 IKT. Bilatu Interneten *Moby Dick* liburuari buruzko informazioa eta azaldu idazlantxo batean.

- Nork idatzi zuen? Noiz argitaratu zen?
- Zer kontatzen da liburuan?
- Zein pertsonaia ageri dira han?
- Zure ustez, nola amaituko ote da?



13 Egin marrazki bat, *Moby Dick* liburuaren azalean agertzeko modukoa.

